

Bizkaia Talent

2017ko Laguntzen Programa

**Parte-hartzaileentzako gidaliburua
11-12-2017**

2017KO LAGUNTZEN PROGRAMA

Bizkaia Talentek, Bizkaiko Foru Aldundiko (BFA) Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Sailak sustatutako irabazi-asmorik gabeko elkarteak, beste euskal erakunde batzuen laguntzaz sustatzen ditu ondo baino hobeto prestatutako pertsonak erakartzeko, bertan geratzeko eta inplikatzeko baldintzak eta prozesuak, Bizkaia/Euskadiko erakundeetako berrikuntzaren eta jakintza aurreratuaren arloak sustatu nahian.

Honako hauexek dira Bizkaia Talenteko kideak: BEAZ, CIC bioGUNE, Iberdrola, Idom, Industria de Turbo Propulsores (ITP Group), Kutxabank, Mondragon Corporation, Sener, Deustuko Unibertsitatea, Euskal Herriko Unibertsitatea, Tecnalía Research & Innovation, IK4 Research Alliance eta Bizkaiko Foru Aldundia. Bestetik, Ekonomiaren eta Lurraldearen Garapenerako Saila da elkarburua.

Esparru horretan, Bizkaia Talentek **2017ko Laguntzen Programa** aurkezten du, euren jarduera Bizkaiko Lurralde Historikoan garatzen duten ETE-etan ondo baino hobeto prestatutako pertsonen kontratazioa bultzatzeko asmoz. Laguntzen Programak Bizkaiko profesionalen eta ikertzaileen jakintza eta ahalmen berritzailea sustatzea dauka helburu, baita haien masa kritikoa handitzea ere.

TALENTUA KONTRATATZEKO 2017KO LAGUNTZEN PROGRAMA

1. PROGRAMARI BURUZKO INFORMAZIO OROKORRA

1.1. Helburua

Talentua Kontratatzekeo Laguntzen Programak honako honexetarako laguntzak ematea dauka helburu:

- Bizkaian goi-mailako prestakuntza daukatenak kontratatzea: Bizkaiko ahalmen berritzailea sustatzen duten profesionalak eta ikertzaileak kontratatzen laguntzea.
- Lan-esperientzia mugatua edukita euren jarduera Bizkaian garatu nahi duten prestakuntzadun langile gazte eta emigratuak kontratatzea.

1.2. Programaren egitura

Ondo baino hobeto prestatutako giza kapitala kontratatzea gure lurralderako inbertsioa da, ikuspegi ekonomiko zein sozialetik. Alde horretatik, 2017ko Laguntzen Programa honen lehentasunezko helburua da profesional eta ikertzaile onenak kontratatzea Bizkaian lan egin dezaten.

Bizkaia Talenten ustez, lehentasunezkoa da ondo baino hobeto prestatutako langileen eta Bizkaiaren arteko epe luzerako lotune sendoak ezartzea. Horrela, Bizkaiko erakundeetan lan egiteko prozesuen garapena sustatu ahal izango da ondo baino hobeto prestatutako giza kapitalarentzako laguntza zuzenen bitartez, etorkizunari begira Bizkaian finkatutako balio erantsi handiko harreman profesionalak betearazteko eta eusteko aukerak handiagoak izan daitezten.

2017ko Laguntzen Programan, laguntza ekonomikoa emango zaie Bizkaian finkatutako lantokiren batean lan-eskaintza duten profesional eta ikertzaileei. Balioa dutela eta lurraldeari ekarpenak egin ahal dizkiotela egiaztatu beharko dute, eta, onuradunak izanez gero, laguntza lortu ahal izango dute Bizkaian bizitzen eta lan egiten daramaten laugarren eta bosgarren urtean. Laguntza horrek ez du inolako zerikusirik edukiko erakundeak eta ondo baino hobeto prestatutako langileak euren artean hitzartutako soldata-baldintzekin. Programa honetako onuradunek jasoko duten laguntza ekonomikoa erakundeak onuradunei Bizkaian garatuko duten jarduera profesional edo ikerketa-jardueragatik ordainduko dien soldataren osagarria izango da.

1.3. Onuradunak

Agiri honetan zehaztutako laguntzak ondo baino hobeto prestatutako pertsonen¹ eskatu ahal izango dituzte (agiri honetan zehaztutako eskakizunak betetzen dituen profesional edo ikertzaile kontratatua), betiere, deialdi hau indarrean dagoen bitartean:

- Euren lan/ikerketa arloko proiektuaren barruan Bizkaian 3 urtetik gorako epealdian lan egitea erabakitzen badute.

Eskabideak honako hauexek aurkeztu beharko dituzte batera:

¹ Ondo baino hobeto prestatutako profesionalak unibertsitateko titulua eduki beharko dute; eta ikertzaileek, doktoretza.

1. Euskaditik kanpo esperientzia duten ikertzaileak edo ondo baino hobeto prestatutako profesionalak eta ikertzaileak.
2. Laguntzaren helburu den goi-prestakuntzadun profesional/ikertzaileak bere jarduera garatu dezan, Bizkaian lantokia daukaten ETEak, nahiz eta erakundearen zerga-helbidea Bizkaian egon ez.

- Kontratugilea (enpresa edo partikularra) ezin izango da inolaz ere 2017ko Laguntzen Programa honetako onuraduna izan.

1.4. Zuzkidura ekonomikoa: 235.000 €

2017ko Laguntzen Programako aurrekontua **235.000 €-koa** izango da jaulkitzen denean. Zenbateko hori handitu edo txikitu egin ahal izango da aurkeztutako izangaien eta Bizkaia Talenten baliabideen erabilgarritasunaren arabera.

1.5. Laguntzaren helburu diren modalitateak

A MODALITATEA: Goi-mailako prestakuntza eta lan-esperientzia zabala dituzten pertsonak kontratatzea.

B MODALITATEA: Lan-esperientzia mugatua daukaten prestakuntzadun euskal gazte eta emigratuak kontratatzea.

1.6. Epea: deialdiaren jaulkipena eta eskabideen jasoketa

2017ko Laguntzen deialdia 2017ko abenduaren 11n argitaratuko da.

Eskabideak 2017ko abenduaren 11tik 2018ko otsailaren 15era arte aurkeztu beharko dira (egun biak barne).

1.7. Programaren egutegi orientagarria

Hona hemen 2017ko Laguntzen Programaren egutegi orientagarria:

2017ko abe	2018ko urt	2018ko ots 1- 15	2018ko ots 16 mar 30	2018ko api	2018ko mai	2018ko eka

	Deialdiaren jaulkipena eta eskabideak jasotzeko epealdia		Eskabideen aukeraketa eta ebaluazioa. Laguntzaren esleipena		Kontratazioak egiteko epealdia
--	--	--	---	--	--------------------------------

2. ONURADUN AUKERATUA IZATEKO IRIZPIDEAK

Aukeraketarako irizpide hauek betetzen dituzten izangaiak izan ahalko dira 2017ko Laguntzen Programako onuradunak:

A MODALITATEA: GOI-MAILAKO PRESTAKUNTZA ETA LAN-ESPERIENTZIA ZABALA DITUZTEN PERTSONAK KONTRATATZEA

Langile kontratatuentzako eskakizunak:

- Laguntzaren helburu den profesionalak edo ikertzaileak Bizkaian bizi eta lan egin beharko du 5 urteko gutxieneko epealdian kontratatzen dutenetik.
- Gutxienez 10 urteko lan-esperientzia eduki beharko du. Salbuespenez, urte gutxiagoko esperientzia duten izangaiak ere hartuko dira kontuan, betiere, garapen-bidean dauden sektoreetakoak badira.
- Haien baldintzak (curriculum vitae) eta lanpostua egokiak izan beharko dira.
- Unibertsitateko titulua eduki beharko dute gutxienez.
- Izangaiak Euskaditik kanpo bizi eta lan egin edo ikertu beharko dute deialdi hau argitaratu (2017ko abenduaren 11n) edo itxi (2018ko otsailaren 15ean) baino 5 urte lehenago gutxienez.
- Euren jarduera profesionala edo ikerketa-jarduera Bizkaian garatu nahi dutela egiaztatu beharko dute.
- Goi-prestakuntzadun onuradunak jarraipenerako sei hileko txostenak aurkeztu beharko dizkio Bizkaia Talenti, eta zer lan egiten duen, zer jarduera garatzen dituen eta zer emaitza lortu dituen azaldu beharko dio bertan.
- Laguntzaren epealdia amaitutakoan, goi-prestakuntzadun onuradunak azken memoria aurkeztu beharko dio Bizkaia Talenti, eta honako hauxe azaldu beharko dio bertan: egindako lana, balioespena, erakundearentzako eta laguntzako onuradunarentzako onurak eta bi alderdien arteko etorkizunerako harremanen inguruko aurreikuspenak.
- Bizkaia Talentek emandako laguntza eteteko edota ezeztatzeko behar besteko eskubidea izango du, goi-prestakuntzadun onuradunak laguntzaren esleipena arautzen duen hitzarmenaren bidez Bizkaia Talentekin adostutako betebeharrak betetzen ez dituenean ("Bizkaia Talent - Berrikuntzan eta Jakintzan Prestatutakoen Mugikortasuna Sustatzeko Elkarteko" laguntzaren esleipena arautzeko hitzarmena, Laguntzen Programaren babespean).

Modalitate honetan, 4 onuradun egongo dira gehienez ere.

B MODALITATEA: LAN-ESPERIENTZIA MUGATUA DAUKATEN PRESTAKUNTZADUN GAZTE ETA EMIGRATUAK KONTRATATZEA

Langile kontratatuentzako eskakizunak:

- Laguntzaren helburu den profesionalak edota ikertzaileak Bizkaian bizi eta lan egin beharko du 5 urteko gutxieneko epealdian kontratatzen dutenetik.
- Euskal Autonomia Erkidegoan jaiotakoak izan beharko dira, edo gutxienez 10 urte eraman beharko dituzte bertan erroldatuta.

- Gutxieneko lan-esperientzia 5 urtekoa izango da; eta gehienekoa, 10 urtekoa (5-10 urteko esperientzia).
- Unibertsitateko titulua eduki beharko dute gutxienez.
- Haien baldintzak eta lanpostua egokiak izan beharko dira.
- Izangaiek Euskaditik kanpo lan egin edota ikertu beharko dute deialdi hau argitaratu (2017ko abenduaren 11n) edo itxi (2018ko otsailaren 15ean) baino 2 urte lehenago gutxienez.
- Euren jarduera profesionala edo ikerketa-jarduera Bizkaian garatu nahi dutela egiaztatu beharko dute.
- Goi-prestakuntzadun onuradunak jarraipenerako seihileko txostenak aurkeztu beharko dizkio Bizkaia Talenti, eta zer lan egiten duen, zer jarduera garatzen dituen eta zer emaitza lortu dituen azaldu beharko dio bertan.
- Laguntzaren epealdia amaitutakoan, goi-prestakuntzadun onuradunak azken memoria aurkeztu beharko dio Bizkaia Talenti, eta honako hauxe azaldu beharko dio bertan: egindako lana, balioespena, erakundearentzako eta laguntzako onuradunarentzako onurak eta bi alderdien arteko etorkizunerako harremanen inguruko aurreikuspenak.
- Bizkaia Talentek emandako laguntza eteteko edota ezeztatzeko behar besteko eskubidea izango du, goi-prestakuntzadun onuradunak laguntzaren esleipena arautzen duen hitzarmenaren bidez Bizkaia Talentekin adostutako betebeharrak betetzen ez dituenean ("Bizkaia Talent - Berrikuntzan eta Jakintzan Prestatutako Langileen Mugikortasuna Sustatzeko Elkarteko" laguntzaren esleipena arautzeko hitzarmena, Laguntzen Programaren babespean).

Modalitate honetan, 2 onuradun egongo dira gehienez ere.

ERAKUNDE ONURADUNARENTZAKO ESKAKIZUNAK/BETEBEHARRAK, ESPERIENZIADUN ETA PRESTAKUNTZADUN LANGILEEN KONTRATAZIORAKO LAGUNTZA LORTZEKO:

- Erakundeak kontratatutako goi-prestakuntzadun profesionalak edo ikertzaileak bete-betean laneratzen direla eta euren eginkizunak dituztela bermatzea. Bizkaia Talentek integrazio hori bermatzeko beste egiaztatgiri eskatzeko eskubidea izango du.
- Lan-kontratua mugagabea edo iraupen luzekoa izatea (5 urterako, gutxienez).
- Goi-mailako prestakuntza eta lan-esperientzia zabalak dituztenak kontratatzeko modalitatean laguntza eskatzen dutenentzako urteko gutxieneko ordainsari gordina 48.000 eurokoa izatea (A MODALITATEA). Ordainsariak txikiagoak ere izan ahalko dira behar bezala justifikatuta egonez gero, erakunde kontratugilearen beraren edo sektorearen ezaugarriak kontuan hartuta.
- Lan-esperientzia mugatua daukaten prestakuntzadun gazte eta emigratuak kontratatzeko modalitatean laguntza eskatzen dutenentzako urteko gutxieneko ordainsari gordina 35.000 eurokoa izatea (B MODALITATEA). Ordainsariak txikiagoak ere izan ahalko dira behar bezala

justifikatuta egonez gero, erakunde kontratugilearen beraren edo sektorearen ezaugarriak kontuan hartuta.

- Erakunde onuradunaren eta laguntza-jasotzailearen arteko lan-harremana bi urtetik beherako epean eteten bada, Bizkaia Talentek ez du inolako ordainketarik egingo, eta emandako laguntza ezeztatuko du.
- Erakunde onuradunaren eta laguntza-jasotzailearen arteko lan-harremana bost urtetik beherako epean eteten bada, Bizkaia Talentek emandako laguntza itzultzeko eskatu eta emandako laguntzaren zati bat edo guztia ezeztatu ahal izango du.
- Lanpostuaren ezaugarriak nahiz eginkizunak argi azaltzea eta erakunde kontratugilearen jarduerarekin zein aurreikuspen estrategikoekin bat etortzea.
- Erakunde kontratugileak ageriko kaudimena edukitzea.
- Indarreko legeriaren arabera zerga, gizarte, lan, merkataritza eta administrazio arloan eskatutako betebeharren betearazpenean egunean egotea.
- Bizkaia Talenti jakinaraztea edozein administrazio edo nazio-mailako edo nazioarteko edozein erakunde publikok edo pribatuk hemen azaldutako helburu bererako emandako dirulaguntzak edo laguntzak lortu direla.
- Jasotako laguntzaren ezarpenaren egiaztagiriak gordetzea, egiaztatu eta kontrolatu egin behar diren bitartean.
- Erakunde onuradunak Bizkaia Talenti laguntzaren helburu den kontratazioaren edo jardueraren garapena oztopatzen edo zailtzen duen edozein gertaeraren berri ematea derrigorrean.

3. Laguntzaren helburu diren berrikuntza-arloak

- BERRIKUNTZA SOZIALA ETA ENPRESEN ERALDAKETA
- ESTRATEGIA ZIENTIFIKO, TEKNOLOGIKO ETA INDUSTRIALA
- INFORMAZIOAREN GIZARTEA

Erakundeek gaur egun edonolako berrikuntza-premia dutela ere (teknologikoa, industrial, zientifikoa, kudeaketa-arlokoa, kulturala...), ETE guztiei parte hartzeko aukera ematea da helburua, betiere, ondo baino hobeto prestatutako langileak laneratzeko eta eusteko eskaera benetakoa bada.

Ahal dela, laguntzaren helburu diren goi-prestakuntzadun profesionalek edo ikertzaileek honako arlo estrategiko hauetako batean garatu beharko dute euren jarduera:

- Aeronautika.
- Automobilgintza.
- Ingeniaritza aeroespaziala.
- Biomedikuntza.
- Bioteknologia.
- Berrikuntza ekologikoa (ingurumena errespetatzen duena), baina, batez ere, ingurumeneko zientziak eta teknologiak. Meteorologia eta klimatologia.

- Energia, baina, batez ere, banaketaren, kalitatearen, eraginkortasunaren eta aurrezki energetikoaren arloak. Energia berriztagarrien integrazioa. Energia eolikoa, eguzki-energia eta olatuena. Bioerregaien, erregai-pilen eta hidrogenoen ekoizpena.
- Elektrizitatea eta elektronika.
- Material berriak, baina, batez ere, altzairugintza, metalgintza, material elektronikoa eta biomaterialak.
- Nekazaritzako elikagaigintzako eta nekazaritzako zein arrantzako baliabideak eta teknologiak.
- Telekomunikazioak.
- Errealitate birtualeko arloak.
- Sareen bilakaera eta sorrera.
- Hizkuntzalaritzako infoingeniaritza.
- Ingurumeneko adimena, baina, batez ere, informazio-sentsoreen sareak; errealitate birtuala, handiagotua eta mistoa; edukiak tratatzeko teknologiak; teknologia biometrikoak; pertsona-gailua interfazeak; teknologia semantikoak eta laguntzarako teknologiak.
- Enpresa digital hedatua.
- Teknologia berriak.

Agiri honetan zehaztutakoak ez beste arlo batzuetan lan egiten duten izangaien eskabideak ere balioetsiko dira, betiere, proiektuaren edota pertsonaren arabera behar bezala justifikatuta badago.

4. PROGRAMAREN MODALITATEAK: eskakizunak, kostuen aukeraketa eta eskabidean aurkeztu beharreko agiriak

Laguntzen Programa hau bi modalitatetan dago egituratuta. Profesionalek eta ikertzaileek eskabide bakar bat aurkeztu ahal izango dute 2017ko Laguntzen Programara. Nolanahi ere, erakundeek izangai batekin edo gehiagorekin aurkeztu ahal izango dira.

Bizkaia Talentek laguntza bat edo gehiago eman ahal izango dizkio erakunde berari, izangai horiek eskakizunak betetzen badituzte eta beharrezkotzat jotzen bada. Izangaitza bakoitza bi alderdiek bete eta babestu egin beharko dute: erakundea eta laguntzaren helburu den prestakuntzadun langilea.

2017ko Laguntzen Programan, ez da kontratugilea inolaz ere finantzatuko, ez erakundea denean ez pertsona partikularra denean.

Eskabideak kontuan hartu daitezzen, geroago adierazitako agiriak aurkeztu beharko dira azken eguna baino lehen (2018ko otsailaren 15a) eta atal horretan azaldutako moduan.

Egokia ez bada, Bizkaia Talentek ez du inolako eskabiderik kontuan hartuko, bertako agiriak hemen azaldutakoa ez beste era batera aurkezten badira eta hemen eskatutakoak ez beste agiri batzuk eransten badira.

Kontratazioak 2018ko ekainaren 30a baino lehen egin beharko dira, eta 2017ko abenduaren 11tik 2018ko otsailaren 15era arte egindako kontratuak ere onartuko dira.

4.1. **1. MODALITATEA: goi-mailako prestakuntza eta lan-esperientzia zabala dituztenak kontratatzea**

1. modalitatearen espirtua esperientzia eta lan-ibilbidea garatzeko ahalmen handia dauzkaten profesionalen eta ikertzaileen kontratazioa sustatzea da, euren talentua garatzeko eta bost urtean, gutxienez, Bizkaiko erakundeetan lan egiteko.

Bizkaia Talentek ondo baino hobeto prestatutako langileen soldata-baldintzen hobekuntza bultzatzen du. Laguntzen Programa honek behar besteko baldintzak ezartzen laguntzea dauka helburu, ondo baino hobeto prestatutako langileak Bizkaiko berrikuntzarako eta jakintzarako prozesura erakartzeko, bertan geratzeko eta inplikatzeko.

Laguntza hauek esperientziadun profesionaleri eta ikertzaileei laneratzen laguntzen dietenez, badute Bizkaian bertan proiektu profesionala edo ikerketa-arlokoa garatzerik.

1. modalitatearen atzean dagoen kontzeptuaren arabera, epe luzerako lankidetzak ezarriko dira erakunde anfitrioiaren eta profesional edo ikertzailearen artean, eta profesional zein ikertzaileok Bizkaia Talenten lehentasun nagusia izango dira. Laguntza bera profesionalaren edo ikertzailearen ohiko soldataren aparteko ekarpena izango da. Profesionalaren edo ikertzailearen harrera-erakundeak behar besteko konpromisoa hartu beharko du, kontratatutako goi-prestakuntzadun langileekin aurretiaz hitzartutako soldata-baldintzei eusteko. Agiri honetan azaldutako laguntzen esleipenak ez du inolako eraginik izan beharko onuradunen artean zehaztutako baldintzetan. Hori dela eta, ez goi-prestakuntzadun langileek ez erakundeak ezin izango dituzte inolaz ere aldatu (betiere, goi-prestakuntzadun langileen onerako ez badira).

Bizkaia Talentek ordainsaria emango du erakundearen eta profesionalaren edo ikertzailearen arteko kontratuan zehaztutako zenbatekoa osatzeko. Edonola ere, soldatak edo lan-baldintzak hobetu ahal izango dira, betiere, erakundeak eta goi-prestakuntzadun pertsonak euren artean halaxe hitzartzen badute. Gainera, profesionalak eta ikertzaileak Bizkaian egoitza daukan erakundean egon beharko dira 2 urtez (2017ko Laguntzen Programara aurkezteko aukeratutako erakundean), eta, guztira, gutxienez, 5 urtez bizi eta lan egin beharko dute Bizkaian. Esleitutako zenbatekoa lan-harremaneko 4. eta 5. urtean ordainduko da. Laguntzetako onuradunek zerga eta lege arloko betebeharrak guztiak bete beharko dituzte, eta onartu egin beharko dute laguntza jasotzen duten bitartean euren ordainsaria honako hauexen batura izango dela gutxienez: erakundeak ordaindutako ohiko ordainsaria eta Bizkaia Talentek ekarpena.

Bizkaia Talentek emandako laguntza beti-beti ekarpen ekonomiko gordina izango denez, onuradunek zerga-betebeharrak bete beharko dituzte beti. Onuradunek euren lege-betebeharrak bete ezean, laguntza eten edota ezeztatu egingo da. Onuraduna izanda ere, profesionalak edo ikertzaileak ez du inoiz lan-harremanik izango Bizkaia Talentekin.

4.2. 2. MODALITATEA: lan-esperientzia mugatua daukaten prestakuntzadun gazte eta emigratuak kontratatzea

2. modalitatearen espiritua esperientzia gutxi eta lan-ibilbidea garatzeko ahalmen handia daukaten profesional eta ikertzaile bizkaitarren kontratazioa sustatzea da, euren talentua garatzeko eta bost urtean, gutxienez, Bizkaiko erakundeetan lan egiteko.

Bizkaia Talentek ondo baino hobeto prestatutako langileen soldata-baldintzen hobekuntza bultzatzen du. Laguntzen Programa honek behar besteko baldintzak ezartzen laguntzea dauka helburu, euskal gazteak Bizkaiko berrikuntzarako eta jakintzarako prozesura erakartzeko, bertan garatzeko eta inplikatzeko, esperientzia profesional mugatua dutenean edo Euskaditik kanpo ikerketa-proiektuetan parte hartu dutenean.

Laguntza hauek lan-esperientzia mugatua daukaten gazte profesional eta ikertzaile bizkaitarrei laneratzen laguntzen dietenez, badute Bizkaian bertan proiektu profesionala edo ikerketa-arlokoa garatzerik.

2. modalitatearen atzean dagoen kontzeptuaren arabera, epe luzearako lankidetzak ezarriko da erakunde anfitrioiaren eta euskal gazte profesional edo ikertzailearen artean, eta langileok Bizkaia Talenten lehentasun nagusia izango dira. Laguntza bera profesional edo ikertzaile gaztearen ohiko soldataren aparteko ekarpena izango da. Profesional edo ikertzaile gaztearen harrera-erakundeak behar besteko konpromisoa hartu beharko du, kontratatutako goi-prestakuntzadun langileekin aurretiaz hitzartutako soldata-baldintzei eusteko. Agiri honetan azaldutako laguntzen esleipenak ez du inolako eraginik izan beharko onuradunen artean zehaztutako baldintzetan. Hori dela eta, ez goi-prestakuntzadun langileek ez erakundeak ezin izango dituzte inolaz ere aldatu (betiere, goi-prestakuntzadun langileen onerako ez badira).

Bizkaia Talentek ordainsaria emango du erakundearen eta profesionalaren edo ikertzailearen arteko kontratuan zehaztutako zenbatekoa osatzeko. Edonola ere, soldatak edo lan-baldintzak hobetu ahal izango dira, betiere, erakundeak eta goi-prestakuntzadun profesionalak edo ikertzaileak euren artean halaxe hitzartzen badute. Gainera, profesionalak edo ikertzaileak erakunde onuraduneko lantokian (Bizkaian) egon beharko dira 2 urtez; eta Bizkaiko beste edozein ETEtan gutxienez 5 urtez, programa honen helburu den lan-harremana hasten denetik. Esleitutako zenbatekoa lan-harremaneko 4. eta 5. urtean ordainduko da. Laguntzetako onuradunek zerga eta lege arloko betebeharrak guztiak bete beharko dituzte, eta onartu egin beharko dute laguntza jasotzen duten bitartean euren ordainsaria honako hauexen batura izango dela gutxienez: erakundeak ordaindutako ohiko ordainsaria eta Bizkaia Talenten ekarpena.

Bizkaia Talentek emandako laguntza beti-beti ekarpen ekonomiko gordina izango denez, onuradunek zerga-betebeharrak bete beharko dituzte beti. Onuradunek euren lege-betebeharrak bete ezean, laguntza eten edota ezeztatu egingo da. Onuraduna izanda ere, profesionalak edo ikertzaileak ez du inoiz lan-harremanik izango Bizkaia Talentekin.

4.3. Aurkeztu beharreko agiriak

Eskabideak 2017ko Laguntzen Programan kontuan hartu daitezzen, izangaiek honako agiri hauek aurkeztu beharko dituzte azken eguna baino lehen (2018ko otsailaren 15ean) eta atal honetan azaldutako moduan.

Eskatutako agiriak www.bizkaiatalent.eus webgunearen bidez aurkeztu beharko dira ezinbestean.

Egokia ez bada, Bizkaia Talentek ez du inolako eskabiderik kontuan hartuko, bertako agiriak hemen azaldutakoa ez beste era batera aurkezten badira. Bizkaia Talentek, gainera, ez ditu hemen eskatutakoak ez beste agiri batzuk onartuko.

- Curriculum Vitaea. CVan, prestakuntzari buruzko informazio nabari guztia agertu beharko da, eta lan-esperientziaren, trebetasunen eta gaitasunen frogak ere erantsi beharko dira. Izangaia erregistratu, bere profilari buruzko informazio guztia bete eta CVa igo beharko du Bizkaia Talenten webgunearen bidez:

<https://extranet.bizkaiatalent.org/profesionals/register.php>

Gero, erakundeek euren eskabidea aurkeztu beharko dute 2017ko Laguntzen Programan horretarako atondutako atalean. Une horretan, sistemak eskabide-kode pertsonala emango dio izangaiari.

Ostean, izangaiek zer modalitatetara aurkeztuko diren aukeratu eta honako agiri hauek igoko dituzte kasuan kasuko ataletara:

- Ikerketa Plana edo honako hauxe azaltzen duen agiria (5 orri, gehienez):
 - I. Proiektuak erakundearentzat daukan interesa edota kontratatutako profesionalak edo ikertzaileak eskainiko duen ekarpena.
 - II. Zenbait proiektu eta beste ikerketa-jarduera batzuek kontuan hartu ditzaketen ikerketa-jardueren azalpena. Profesionala izanez gero, kontratatutakoaren kargua eta eginkizun nagusiak zein diren zehaztu beharko da.
 - III. Ikertzailearen edo profesionalaren eta erakundearen arteko osagarritasunen azalpena.
 - IV. Egokitzat jotako unibertsitate-tituluak eranskin moduan igoko dira.
- Garapen Profesionalerako Plana (2 orri, gehienez).
- AIZren edo pasaportearen kopia.
- Sinatutako kontratuaren kopia eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzako altaren aitortzari buruzko ebazpenaren kopia.
- Sinatutako **lan-kontratuaren eranskina**. Hitzartutako lan-baldintzen berri ematen duen agiria (urteko ordainsaria eta, hala badagokio, dietak,

helburuen lorpenaren arabera aurretiaz hitzartutako pizgarriak edo igoerak edo beste edozein datu interesgarri). Agiri hau aurkeztean, erakundeko GGBBetako arduradunaren, saileko zuzendariaren edo gerentearen sinadura eraman beharko du. Erakundearen beraren zigilua ere eraman beharko du. Eskabidea aurkeztean oraindik ere kontratua sinatu ez bada, **Konpromisoaren Adierazpena** aurkeztuko da (kontratuaren eranskinaren orde): deialdi hau ixten denean (2018ko otsailaren 15a) kontratua sinatu gabe badago, hitzartutako lan-baldintzen berri ematen duen agiria erantsiko da. Honako hauxe adierazi beharko da bertan: sinatzeko aurreikusitako data, urteko ordainsaria eta, hala badagokio, dietak, helburuen lorpenaren arabera aurretiaz hitzartutako pizgarriak edo igoerak edo beste edozein datu interesgarri. Agiri hau aurkeztean, erakundeko GGBBetako arduradunaren, saileko zuzendariaren edo gerentearen sinadura eraman beharko du. Erakundearen beraren zigilua ere eraman beharko du. Agiri hori ebaluaziorako eta laguntzaren esleipenerako hartuko da kontuan, baina onuradun hautatu izanez gero, kontratua eta Gizarte Segurantzako Diruzaintzako altaren aitortzari buruzko ebazpena aurkeztu beharko dira laguntza betearazi baino lehen.

- Errola-ziurtagiria edo Bizkaian kontratatua izan aurretiko lantokiko eta bizilekuko agintariak egindako antzeko agiria edo beste edozein agiri, deialdi honetako eskabideak jasotzeko epealdiaren aurretik (2017ko abenduaren 11tik 2018ko otsailaren 15era) gutxienez 2 edo 5 urtez (aukeratutako modalitatearen arabera) izangaiek Euskaditik kanpo lan egin edota ikertu dutela egiaztatzeko.
- De Minimis.
- Era berean, laguntza-eskabideko orria ere bete beharko dute izangaiek (www.bizkaialalent.eus webgunean programari buruz dagoen atalean dago eskuragarri).

Eskabidea ebaluatua izan dadin, eskatutako agiri guztiak igo ondoren, izangaiek eskabidea bidali beharko dute. Horretarako, "Submit" botoia sakatu beharko dute.

5. ESKABIDE-PROZESUKO FASEAK

5.1. Eskabidearen fasea

5.1.1. Eskabideari buruzko informazio orokorra

Deialdi honekin lotutako informazioa hemen dago eskuragarri: www.bizkaialalent.eus

2017ko Laguntzen Programan parte hartu nahi duten izangai hautagarriek eskabide-orriak betetzeko behar besteko laguntza eskatu ahal izango dute posta elektronikoz (aidcall@bizkaiatalent.eus), telefonoz (+34 94 479 54 28) edo Bizkaia Talenteko instalazioetan bertan.

Behar bezala betetako eskabidea eta 2017ko Programan parte hartzeko eskatutako agiriak bidaltzeko azken eguna 2018ko otsailaren 15a izango da.

Bizkaia Talentek nahi beste agiri edota informazio eskatu ahal izango du ebaluazio-prozesuko edozein unetan, aurkeztutako eskabidea behar bezala ulertu eta balioetsi ahal izateko. Eskatzaileak eurak prozesu osoan aurkeztutako informazioaren edota agirien egiazkotasunaren eta benetakotasunaren erantzuleak izango dira.

5.1.2. Izangaiantzako laguntza

Bizkaia Talenteko talde administratiboak eskabide-orriak berrikusiko ditu.

Agiriren bat aurkeztu ez bada, izangaiarekin jarriko da harremanetan, deialdiaren epeari begira halakorik egiterik badago eta Bizkaia Talenteko langileek prestasunik badute.

Izangaiek behar besteko jakinarazpena bidali ahal izango dute aidcall@bizkaiatalent.eus posta elektronikora, inolako akatsik antzeman badute.

5.1.3. On line erregistroa

Eskatutako agiriak on line aurkeztu beharko dira ezinbestean www.bizkaiatalent.eus webgunearen bitartez. Horretarako, erabiltzaile-izena eta pasahitza eduki beharko dituzte. Lehenengo eta behin, eskatutako eskabide-orria bete beharko dute, hau da, norberaren datuak, datu akademikoak eta laneko datuak, besteak beste. Gero, izangaiaren CVa igo beharko da. Informazio hori profesionalak/ikertzaileak berak bete beharko du estraneteko "my profile" atalean (<https://extranet.bizkaiatalent.eus/professionals/extranet>).

Ondoren, erakundea bera estraneten bertan programari buruz dagoen atalean sartu beharko da, "Create New Request" botoiaren bidez izangaitza aurkezteko. Gero, erakundeak berak izangaitza zer modalitatetan aurkeztu nahi duen hautatu, eskabide-orria bete eta horretarako eskatutako agiriak igo beharko ditu. Azkenik, eskabidea behar bezala bete dela egiaztatu ostean, "Submit" botoiaren bidez bidali beharko da eskabidea. Sistema informatikoak beharrezko datuak sartzen baino ez dio utziko eskatzaileari. Bizkaia Talentek ez du inolako informazio gehigarririk balioetsiko.

Erregistratu eta gero, izangaiek zenbait unetan igo ahal izango dituzte agiriak, eskabidea aurkezteko epea amaitu baino lehen. Une zehatz batean igotako agiriak ez galtzeko, "Save" botoia sakatu beharko da beti.

Modalitate bakoitzerako izangaien zerrenda www.bizkaiatalent.eus webgunean argitaratuko da. Izangai onuradunen izen-abizenak jendaurrean jarri ahal izango dira ikusgai; baina onuradunak ez direnen kasuan, eskabide-kodea baino ez. Aldi berean, erakunde onuradunen izenak ere agertu ahal izango dira.

5.2. Hautaketa-prozesua

Hona hemen hautaketa-prozesuko faseak:

5.2.1. Aukeraketarako irizpideak egiaztatzeko fasea

Lehenengo fasean, Bizkaia Talentek aukeraketarako eskakizunak betetzen dituzten izangaiak hautatuko ditu. Bizkaia Talenteko teknikariek deialdiko eskakizun formalak betetzen dituzten izangaiak hautatuko dituzte, betiere, laguntza jasotzerik badute.

5.2.2. Ebaluazio-fasea

Lehenengo fasean, ebaluatzaileek urruneko azterketa egingo dute izangaiaren eskabidearen (eta agirien) hautaketa/ebaluazio gardenerako irizpideen arabera.

Eskabideak Ebaluazio Lantaldeak berrikusiko ditu. Bertako kideak zenbait sektoretako (pribatuak eta publikoak) eta diziplinatak adituak izango dira, eta esperientzia nabaria izango dute izangaiak balioesteko orduan.

Ebaluazio Mahaiak izangaien ahalmen globala balioetsi eta egiaztatu egingo du, baita haien lan-ibilbidea sendoa bezain koherentea dela ere. Kide bakoitzak izangaien espedienteaz aztertuko du, hau da, aurretiazko urteetako esperientzia, aurkeztutako emaitzak, Bizkaian garatu beharreko proiektua... Lortutako puntuazioaren arabera, izangai finalisten zerrenda egingo da.

Beharrezkoa izanez gero, gutxieneko maila lortzen duten eskabideak ebaluazio-prozesuaren hurrengo fasera igaro ahal izango dira.

Bigarren fase horretan, izangai finalisten kopurua eta urruneko ebaluaziorako fasean lortutako puntuazioaren ostean euren artean dagoen lehia kontuan hartuta, Ebaluazio Lantaldeak urruneko ebaluazioan bertan 70 puntu edo gehiago lortu dituzten izangai hautagarriari egin ahal izango die elkarrizketa. Hala badagokio, ebaluatzaileek telekonferentziaren bidez egindako elkarrizketa birtualerako gonbita jasoko dute. Elkarrizketa horretan, ebaluatzaileek eskabide idatzian aurkeztutako elementuak egiaztatu eta izangaien motibazioak balioetsi ahal izango dituzte.

Ebaluatzaileen taldeak eskabide osoaren puntuazio orokorra emango du, eta adostasuna lortu behar du. Lortutako puntuazioaren arabera, izangai finalisten zerrenda egingo da.

Arrazoiren batengatik elkarrizketa egiterik ez badago, eskabidea ebaluazio-prozesuko bigarren fasean kanpo geratuko da zuzenean, eta ez da erreklamazioa egiteko aukerarik egongo. Elkarrizketa arazo teknikoengatik bakarrik egiterik ez badago, beste data bat ezartzeko ahalegina egingo da, betiere, egitate horrek programa honetan aurreikusitako esleipen-epeetan inolako eraginik ez badu.

Azkenik, Bizkaia Talenteko Zuzendaritza Batzordeak izangai finalisten artean esleituko ditu laguntzak.

5.3. Eskabideen balioespena

Eskabideak honako irizpide hauen arabera balioetsiko dira ebaluazio-prozesuan:

- Prestakuntza akademikoa: prestakuntza akademikoa ebaluatuko da, hau da, titulazio-mota, sariak, aipamenak eta, hala badagokio, espediente akademikoa.
- Esperientzia, lan-gaitasuna eta trebetasunak: honako hauxe ebaluatuko da: esperientzia profesionala, emaitza nabariak (esate baterako, patenteen garapena, argitalpenak, hitzaldietako partaidetza, zuzendaritzako karguak,

lidergoa, herritarren sentsibilizaziorako jarduerak, irakaskuntza, jakintzen igorpena...), hizkuntzak, zeharkako trebetasunak, lan-ibilbide dibertsifikatua eta, hala badagokio, izangaiak aurkeztutako gomendioak zein erreferentziak.

- Proiektuaren koherentzia eta sendotasuna eta izangaiaren motibazioa, hau da, garapen profesionalaren aurreikuspenak. Merezimenduak eta goiprestakuntzadun pertsonen erakundean eta Bizkaiko ekoizpen-sarean egindako ekarpen bereizgarria. Erakundearen proposamen estrategikoa eta hautatutako izangaiak nola txertatuko den bertan...

Izangaien ebaluazioa

Honako haxe kontuan hartuko da eskabideak balioesteko orduan:

Laguntza-modalitateak	Prestakuntza	Esperientzia ²	Proiektua	Jatorria ³	Talentia ⁴	Egoitza soziala ⁵
Goi-mailako prestakuntza eta lan-esperientzia zabala dituztenak kontratatzea (A MOTA)	5 puntu	45 puntu	40 puntu	5 puntu		5 puntu
Lan-esperientzia mugatua daukaten prestakuntzadun gazte eta emigratuak kontratatzea (B MOTA)	25 puntu	25 puntu	40 puntu	-	5 puntu	5 puntu

1. taula: Ebaluazio-prozesuko gehieneko puntuazioak

² Izangaiek eskabidean emandako datuen arabera ebaluatuko da esperientzia; eta, halaxe eginez gero, ondo baino hobeto prestatutako profesionalari eta, hala badagokio, erakundeko edo proiektuko arduradun/zuzendari/gerenteari izangaiaren ezaugarriei edo ekarpenei buruz egindako elkarrizketan epaimahaiak ateratzen dituen ondorioen arabera ere bai.

³ Izangaien ebaluazioan parekotasunik badago, modu onean balioetsiko da euskal herritarrek erakartzea/itzultzea. Hain zuzen ere, 5 puntu emango zaizkie goi-prestakuntza eta lan-esperientzia handia dituzten euskal profesionalak kontratatzeke eskabideei.

⁴ B modalitatean, modu onean balioetsiko da goi-prestakuntzadun profesionalak Bizkaia Talenteko Talentia Zerbitzuko programaren batean parte hartu izana (edozein euskal unibertsitatetako izanda ere). Hain zuzen ere, 5 puntu emango zaizkie programa horretako izangairen bat aurkezten duten eskabideei.

⁵ Izangaien ebaluazioan parekotasunik badago, modu onean balioetsiko da Bizkaian egoitza soziala duten erakundeek goi-prestakuntzadun langileak erakartzea/itzultzea. Hain zuzen ere, 5 puntu emango zaizkie Bizkaian egoitza soziala duen erakundearen babesa duten eskabideei.

Bi izangairen edo gehiagoren artean berdinketarik badago, honako hauxe kontuan hartuko da laguntza esleitzeko orduan:

- Deialdi honetarako epaimahaiak egindako ustezko elkarrizketako/elkarrizketetako emaitza.
- Modu onean balioetsiko da goi-prestakuntzadun emakumeak kontratatzea.

Bizkaia Talentek esleitu gabe utzi lezake laguntzen deialdi hau. Hona hemen arrazoiak:

- Izangairik ez badago edota
- Aurkeztutako eskabideek elkartearen aurreikuspenak eta helburuak betetzen ez badituzte.

Bizkaia Talentek esleitu gabe utzi lezake deialdia. Bestela, modalitate bakoitzerako zehaztutako ehunekoak ere aldatu litzake, gainerako modalitateen artean banatzeko.

5.4. Laguntzak esleitzeko prozedura

Laguntzak honelaxe esleituko dira:

- Izangaiak zehaztutako epean aurkeztutako merezimenduen lehiaketaren bidez.
- Agiri honetan zehaztutako irizpideak kontuan hartuta balioespen handiena lortu duten eskabideen arabera. Esleitu beharreko laguntza guztien muga zuzkidura ekonomikoaren atalean zehaztutako zenbatekoa izango da, hain zuzen ere: 235.000 €.

Bizkaia Talentek ekarpen ekonomikoak egin ahal izango dizkie izangai onuradunei, eta izangaiak balioesteko prozesuan lortutako puntuazioaren arabera aldatu ahal izango da zenbateko hori.

Laguntza esleitzeko, ezinbestekoa izango da onuradunaren eta Bizkaia Talenten eta, hala badagokio, harrera-erakundearen arteko lankidetzahitzarmena sinatzea.

5.4.1. Esleitutako laguntza ordaintzeko modua

Bizkaia Talentek ekarpen ekonomikoak egin ahal izango dizkie izangai onuradunei, eta haien zenbatekoa desberdina izango da izangaiak balioesteko prozesuan lortutako puntuazioaren arabera.

Beti-beti, Bizkaian lan egindako 3 urteak amaitutakoan esleituko da laguntza. Lan-harremaneko lehenengo 24 hilabeteak igarotakoan, onuraduna beste erakunde batera joan ahal izango da, betiere, beste lantoki hori Bizkaian kokatuta badago.

A MODALITATEA: GOI-MAILAKO PRESTAKUNTZA ETA LAN-ESPERIENTZIA ZABALA DITUZTENAK KONTRATATZEA

Goi-prestakuntzadun profesionalak edo ikertzaileak eta harrera-erakundeak betebeharrak guztiak bete ondoren, Bizkaia Talentek hautatutako izangaiek ebaluazio-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera zenbatekoa daukan laguntza jasoko dute.

Bizkaia Talentek esleitutako laguntza Bizkaian garatutako jardura profesionaleko edo ikerketa-jarduerako lagarren eta bosgarren urtean banatu eta betearazi egingo da. Gehieneko zenbatekoa 160.000 €-koa izango da, eta 2 edo 3 laguntzatan zatituko da. Laguntza bi urtean emango zaie onuradunei: sei hileko bakoitzean emango diren 4 zenbatekotan zatituko da laguntza osoa.

Esleitutako laguntza ordaintzeko modua: sei hilean behin hainbanatuko da, eta goi-prestakuntzadun profesionalak edo ikertzaileak 4. urteko lehenengo sei hilekoan Bizkaian lanean jarraitzen duela egiaztatzen duenean egingo da lehenengo ordainketa.

B MODALITATEA: LAN-ESPERIENTZIA MUGATUA DAUKATEN PRESTAKUNTZADUN GAZTE ETA EMIGRATUAK KONTRATATZEA

Goi-prestakuntzadun profesionalak/ikertzaileak eta harrera-erakundeak betebeharrak guztiak bete ondoren, Bizkaia Talentek hautatutako izangaiek ebaluazio-prozesuan lortutako puntuazioaren arabera zenbatekoa daukan laguntza jasoko dute.

Bizkaia Talentek esleitutako laguntza Bizkaian garatutako jardura profesionaleko edo ikerketa-jarduerako lagarren eta bosgarren urtean banatu eta betearazi egingo da. Gehieneko zenbatekoa 75.000 €-koa izango da, eta 2 laguntzatan zatituko da. Laguntza bi urtean emango zaie onuradunei: onuraduneko laguntza osoa 4 zenbatekotan zatituko da (bi onuradunek zenbateko berbera jasoz gero, 37.500 eurokoa izango da zenbatekoa), eta sei hileko bakoitzaren amaieran ordainduko dira.

Esleitutako laguntza ordaintzeko modua: sei hilean behin hainbanatuko da, eta goi-prestakuntzadun profesionalak edo ikertzaileak 4. urteko lehenengo sei hilekoan Bizkaian lanean jarraitzen duela egiaztatzen duenean egingo da lehenengo ordainketa.

Bizkaia Talentek edo harrera-erakundeak legearen arabera atxikipenak egin eta ezarri beharreko zerga-araudia bete beharko du une oro. Izangaiei dagokienez, laguntza kobratzean indarrean dauden zerga-legeak ezarri beharko dira.

5.5. Erabakiak hartzeko prozesua

Eskabide bakoitzean lortutako puntuazioaren eta sailkapen orokorreko posizioaren bidez, izangaia onartzea edo ez onartzea erabakiko da, baita laguntzaren zenbatekoa zein izango den ere.

Bizkaia Talentek haien eskabidea onartu edo gaitzetsi den jakinaraziko die izangaiei. Horrez gain, onuradunen eta ez-onuradunen azken zerrenda argitaratuko du www.bizkaiatalent.eus webgunean, agiri honetan lehen adierazitako moduan.

Edozein modalitatetako eskabidea egitean, 2017ko Laguntzen Programa arautzeko agiri honetan azaldutako guztia zuzenean eta oso-osorik onartu beharko du eskatzaileak.

Bizkaia Talentek eskumen eksklusiboa izango du, agiri honetan azaldutako baldintzak interpretatzean eta ezartzean sortu daitezkeen gaiak ebazteko orduan. Era berean, erabaki horiek deialdi honen

espirituaren arabera egokitzen jotako moduan askatasunez hartzeko eskubidea ere izango du elkarteak.

5.6. Egutegi orientagarria

Hona hemen 2017ko Laguntzen Programarako deialdiko egutegi orientagarria:

- Deialdiaren hasiera: 2017ko abenduaren 11
- Eskabideak bidaltzeko azken eguna: 2018ko otsailaren 15a
- Ebaluazio-prozesua: 2018ko martxoa
- Emaitzak eta laguntzaren esleipena: 2018ko martxoa
- Kontratuak egiteko epea: 2018ko ekainaren 30era arte

5.7. Izangaientzako feedbacka

Izangaiek feedbacka jasoko dute hautaketa-prozesuko fase bakoitzaren amaieran.

Izangaiek jakinarazpena posta elektronikoz edota ohiko postaz jasoko dute zuzenean, eskabidearen onarpenaren eta hautaketa-fase bakoitzaren osteko ebaluazioko emaitzaren berri emateko.

5.8. Laguntzen Programa honen indarraldia

Deialdia 2018ko otsailaren 15era arte egongo da zabalik (egun hori barne). Hautatutakoei ebazpenaren berri emango zaie zuzenean, eta www.bizkaialalent.eus webgunean argitaratuko da.

Deialdi berririk egonez gero, agiri honetan zehaztutako irizpideak erabiltzeko edo edukia oso-osorik edo zati batez aldatzeko erabakia hartu ahal izango du Bizkaia Talentek.

Bizkaia Talentek eskabideak onartzeko beste epe bat zehaztuko du, eta, egokia dela uste badu, laguntzen deialdi honen indarraldia ireki ahal izango du berriro, honako hauxe gertatuz gero:

- a) 2018ko otsailaren 15era arte jasotako izangaitzek deialdi honen aurreikuspenak edota espiritua betetzen ez badituzte.
- b) Bizkaia Talententzat onuradunak izan daitezkeen izangaiek 235.000 euroko ekarpen ekonomiko osoa estaltzen ez badute.
- c) Izangairik ez dagoenez, Bizkaia Talentek deialdia esleitu gabe uzten badu.

5.9. Kexak

Izangaiek kexarik badute, edozein fasetako emaitza jasotzen dutenik 7 eguneko epea izango dute errekurtsioa aurkezteko. Hartara, "aukeraketarako irizpideen fasearen" ostean beharrezkoa izanez gero, Bizkaia Talentek Zuzendaritza Batzordeko bi kidek osatutako lantaldea eratuko du, elkarteak egindako lana ebaluatzeko. Une horretan akatsik antzeman ez gero, eskabidea ebaluazio-fasera igaroko da zuzenean, eta ebaluazio-prozesu arrunta jarriko da abian.

Izangairen batek ebaluazio-prozesuan gabeziak egon direla uste badu, Bizkaia Talenteko Zuzendaritza Batzordeko bi kidek osatutako Errekurtsio Lantaldea eratuko da. Akatsik antzeman ez gero, proposamena bera oso-osorik edo zati batez ebaluatuko da berriro.

5.10. Programako onuraduni jakinarazi osteko berrikuspen-prozesua

Izangaiei onuradunak direla jakinarazi ondoren, hitzarmena sinatu beharko dute Bizkaia Talentekin.

4. eta 5. urteetako seihileko bakoitza eta laguntza jasotzeko epealdia amaitutakoan, honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte izangaiek:

- Onuradunek egindako seihileko banakako txostena. Bertan, garatutako jardueren eta lortutako emaitzen laburpena ere aurkeztu beharko da.
- Onuradunek egindako azken memoria, Bizkaira iritsi edo itzuli zirenetik lortutako mugarri handiak eta Laguntzen Programa honetako esleipenak eskaini dizkien onurak azaltzeko.

Agiri horien helburua informazioa ematea baino ez da izango. Haiei esker, Bizkaia Talentek jarraipena egin eta 2017ko Laguntzen Programaren eraginkortasuna egiaztatu ahal izango du.

5.11. Laguntzaren ezeztapena

- Onuradunak laguntza bera onarpen formalaren ostean baina programa amaitu baino lehen ezeztatzen bada edo laguntza bera diziplinazko arrazoiengatik ezeztatzen bada, onuradunarentzako laguntzaren ordainketa etengo da. Bizkaia Talentek onuradunari ere eskatu ahal izango dio ordura arte betearazitako laguntza oso-osorik edo zati batez itzultzeko.
- Laguntza esleitzeko orduan eskatzaileak argitalpen honetan zehaztutako eskakizunak betetzen ez bazituen edo laguntza ez eskuratzeko edo ez osatzeko moduko baldintza edo eskakizunen bat sortu bada.